

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Lanpostuen zerrenda aldatzea

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 16. artikulua araber, argitaratu egiten da Aguraingo Udalak, 2020ko urtarrilaren 29ko ohiko osoko bilkuran, onetsi zuen lanpostu zerrendaren aldaketa, hain zuzen ere aguazil plazari dagokiona. Honela geratuko da plaza hori:

#### Lanpostuaren izena: Udaltzaingoko agentea

Kop: 1

Taldea: C (C1)

Eskala: AB

Azpieskala: ZB

Mota: F

Dedikazioa: N

Betetzeko era: OL

Titulazioa: 300

Hizkuntza eskakizuna: 2

Derrigortasun data:

Berariazko ezaguerak: B1

DO: 22

Oharrak

#### Literalak

Eskala:

AB: administrazio berezia.

Azpieskala:

ZB: zerbitzu bereziak.

Mota:

F: funtzionarioa.

Dedikazioa:

N: normala.

Betetzeko era:

OL: oposizio-lehiaketa.

Titulazioa:

300: batxilerra, LH 2. maila edo baliokidea.

Berariazko ezaguerak:

B1: B1 motako gidabaimena.

7/1985 Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera, erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka errekurtsio hauek jarri ahal izango dira:

1. Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, aurka egindako egintza eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikulua arabera.

2. Administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo berraztertze errekurtsioaren esanbidezko ebazpenetik, errekurtsio hori jarri bada. Aukerako berraztertze errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean esanbidezko ebazpenik jakinaraziko ez balitz, ezetsizat jo beharko da, eta administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da sei hilabeteko epean, presuntziosko egintza gauzatzen den hurrengo egunetik (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikulua). Aukerako berraztertze errekurtsioa jartzen bada, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri hori esanbidez ebatzi arte, edo, jarritako berraztertze errekurtsioaren presuntziosko ezespina gertatu arte, hori jarri eta hilabete batera.

3. Bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsio (39/2015 Legearen 40.2 artikulua).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2020ko urtarrilaren 29a

*Alkatea*

**ERNESTO SAINZ LANCHARES**